

- 1 - Nor zen Cisneros. ?
- 2 - Zer omen zuen ?
- 3 - Nafarroa maite zuena ?

ZER GINEN ETA ZER GIREN *

II

(Bigarren aldiz)

Idazti buru huntako hitz bereekin aitzinian, egin nuen orai duela zombait egun sail bat gure Nafarroa behialako gerthakari larrienaz mintzatuz laburzki.

Oraiko lantxo huntan nahi dut yarraiki gauza beraz, irakurleek onhartuko dutelako ustean.

Erraiten nuen lehengo aldian nola Espainiarrek garhaitu eta menperatu ginduzten gudu garratz baten ondotik.

Denbora hetan bazen Espainian gizon bat mundu guztiaren aiphu haundikoa; Cisneros kardenalea.

Fraidea zen. Yite suharra eta kalipuduna, ba eta burukoia ere. Yakitate haundikoa eta adimendu argia. Xede bat bururatuzkioz¹ etzen sekula hartarik kantitzen eta harek asmatua egin behar zen, nahi ala ez.

Hain zen gizon larria nun erregea bera baino manatzaillea zen, eta haren eskupian atxikia zuen. Bazakien orotarik: eskol-emaile haundia, gudulari eta politikako gizona gain gainerik. Argelia, Afrikako eskualderat moruen aitz² yuan zirelarik Espainiarrak, Cisneros fraidea gudularien buruzagi zen.

Bainan egiari zor dugu erraitea ere gizon lañoa³ apha-la zela bere bizitzan. Hain ahaltsua izanikan ere, nahi zituen aberatutasunak bere eskuetan, halere bizkitartean, edozcin fraide gisan, ganbera edo gela hertsia eta xirtxil² batian iragaiten zituen gauak.

Eta zorigaitzez holako gizon hori ginuen Nafarroako erai gorriena.

Bere herrakunde latzan nahi izan zituen Nafartar guziak ereman Andalucia-ko eremuetarat, eta hunarat ekharrarazi hango yendeak gure erresuma dohakabeaz arrunt eta errotik bethikotz yabertzeko. Bainan zorionez xede garratz hori etzuen bururatu. Cisneros etzen sekula fida Nafartarrez, eta asaldatzeko eta etsaiari ihardokitzeko bideak ezeztatu nahiz gure gudu-gaztelu ederrenak eta azkarrenak suntsiarazi zituen, erroraino aurthikiz³, harririk xutik utzi gabe. Izigarriko desmasiak egin zituen.

Nolakoak ziren yakiteko guk egin ginituen gazteluak hor dira oraino mirakuluz utziak Artajona-ko harrisu⁴ gaitzak, herriaren gerizatzeo eraikiak. Hor daude oraino xutik bere dorre eta phezoinekin, yendeen harritzeko. Denbora hetan Artajonak garrantzi haundia zuen hego aldeko etsaien bidea gerizatzeo eta zaintzeo.

(1) bururatuz geroz.

Europe Zubere (dik Maxex handi)

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Bazakien - 32. Hor dande

33. Egin ginituen 34. Zaituztet.

31. IAKIN - Conj. forte - Indicatif Imparfait
 O.S. O.P.

Nik nahien = (je le savais)	nahzien = (je les savais)
Hik nahien =	nahzien =
Zuk zinahien =	zinahzien =
Harek zinahien =	zinahzien =
Guk zinahien =	zinahzien =
Zuek zinahien =	zinahzien =
Heiek zinahien = etc	zinahzien = etc

32. EGON Conj. forte Indicatif

<u>PRESENT</u>	<u>IMPERFECT</u>
Ni nago = je reste	nindagon = je restais
Hi hago =	hindagon =
Zu zaudete =	zinauden =
Hura dago =	zagon =
Gue gaudete =	ginauden =
Zuek zaudete =	zinaudetzten =
Heiek daude = etc	zauden = etc

33. UKAN = Indicatif Imparfait
Objet pluriel

Nik nituen = je les avais
Hik hituen = tu les avais
Zuk zinituen = vous les aviez
Harek zituen = il les avait
Guk ginituen = nous les avions
Zuek zinituzten = vous les aviez
Heiek zituzten = ils les avaient